

Aner Parra Leon

F maila • **3 saria**

Aner Parra Leon Beasainen jaio zen 2012-ko apirilak 30-ean. Oso gustokoak ditu matematikak eta irakurketa baina batez ere bere laguntxoekin jolasean ibiltzea. Edozein kirol probatzen eroso sentitzen da, futbola, saskibaloia, igariketa, mendi ibilaldiak, txirrindularitza... Sukaldea eta sukaldaritza ere interesgarriak iruditzen zaizkio, ama edo amonaren alboan beti. Pozik bizi da eta bere inguruan poztasuna banatzen du.



TXIMU TRISTEA

Bazen behin Jon izeneko mutiko bat. Animaliak izugarri gustatzen zitzaizkion, egunero joaten zen bere baserri inguruko basora. Han, zenbait animalia, katagorriak, pottokak, oreinak... bere lagunak ziren eta gutuziak eramaten zizkien: txokolate zatiak, azenarioak, eta abar.

Egun batean, andereñoak txango bat antolatu zuen, Zoo-ra joan behar zuten egun pasa.

Jon oso pozik jarri zen animalia pilo bat ikusi behar zituelako.

Egun hori noiz iritsiko zain zegoen.

Horrela iritsi zen txango eguna eta gelako lagun eta irakasleak poz- pozik abiatu ziren, baina iritsi orduko, Jon konturatu zen, animalia batzuk ez zeudela batere pozik.

Tximu txiki batek deitu zion arreta. Bera, bakar-bakarrik txoko batean zegoen. Bere begirada oso tristea zen, ez zion inori kasurik egiten.

Jonek zoo-ko zaintzaileari galdetu zion tximu horren berri. Eta honela kontatu zion:

- Tximu txiki hori Afrikako ohianean bizi zen, bere aita eta amarekin, lasai-lasai, ehiztariak egun batean iritsi ziren arte. Ehiztariak tximu txikia harrapatu nahi zuten gero saldu ahal izateko eta borroka horretan gurasoak hil zituzten. Tximutxo hori bakarrik gelditu zenez gero, zoo honetara ekarri zuten, geroztik oso triste goibel dago. Jonek arreta handiz entzun zuen arduradunak kontatutakoa.

Txangoa bukatu eta etxera itzuli orduko hasi zen Jon tximu txikiaz pentsatzen.

“Zer egin dezaket animalitxo hori hortik ateratzeko?” Geroztik, Jonen buruan bur-bur dabil ideai hori, nola atera dezaket hortik?”

Jonen irteera gehienak zoo-ra izan ziren hortik aurrera. Tximuari bananak eta kakauexak eramaten zizkion. Tximua ere, Jon azaltzen zenean oso pozik jartzen zen, elkar ezagutzen ziren.

Behin, Joni zerbait bururatu zitzaion: bere baserriko ganbaran, bere txikitako haur-kotxea

PROSA

zegoen. Igande goiz batean hartu eta zoo-ra joan zen. Iritsi orduko gerturatu zitzaion tximu txikia. Jonek, poliki- poliki eta erdi izkutuan, tximua haur-kotxean sartu zuen eta berehala zootik irten eta bere baserrirantz abiatu zen.

Baserri inguruko basoan askatu zuen bere tximutxo laguna, han benetan pozik zebilen. Egunero elkarrekin jolasten zuten, bananak eta beste hainbat janari ere ez zitzaizkion falta tximuari. Bai, zerbait falta zaio, izena! Ba..” Bakartxo” deitzea otu zitzaion Joni, hain bakarrik zegoen!

Orain Bakartxo Jonen baserri inguruan bizi da, baina Jonek badauka beste ideia bat buruan. Ahal duenean Bakartxo bere benetako etxera eramango du.

Afrikako oihanera!!!